



Prensa oharra

Logistika iraunkor bateranzko bidean

EROSKI-K LEHEN LEAN&GREEN IZARRA LORTU DU BERE CO₂ EMISIOAK GUTXITZEAGATIK

- Europako Lean & Green plataformaren helburua da konpainia liderren sare bat eratzea iraunkortasun logistikoaren alorrean, CO₂ emisioak %20 behintzat gutxitzeko 5 urtean
- EROSKI %5ean gaintitu du markatutako %20ko helburua, eta, gainera, urtebete aurreratu du hitzemandako epea
- EROSKI konpromisoa hartu du ingurunean egiten duen kaltea gutxitzeko, prozesuak, egoitzak eta produktuak hobetuta iraunkortasun ekonomiko, sozial eta etikoaren aldetik

Elorrio, 2021eko otsailaren 9a.- [AECOC Ekoizleen eta Banatzaileen Elkarteak Lean & Green](#) izarra eman dio lehenengoz [EROSKI](#)ri garraio eta logistika prozesuetan helburua gaintitzeagatik, hau da, CO₂ emisioak %20 gutxitzea. EROSKI, hala, %25era iritsita, iragarritakoa gaintitu ez ezik, soilik 4 urte behar izan ditu, Lean&Greenek saritutako 2018ko planak 5 urteko epea bazekarren ere.

EROSKI, kontsumoaren sektoreko beste 18 enpresarekin batera, Lean & Greenen lidergoa du, Europako lankidetzak plataformarik handiena, bereziki bideratua hornidura kateari loturiko emisioak gutxitzeko. Nazioarteko eta lanbide arteko ekimen bat da, helburu duena enpresei laguntzea berotegi efektuko gasak gutxitzen; horrekin batera, asmoa da helburu zenbakarri bat iristen laguntzea eta beste enpresa batzuekin maila nazionalean bezala Europa mailan lankidetzan aritzea, baita jardunbide onak partekatzea ere, eta iraunkortasunaren erreferente izatea, segimendu sistema garden eta jarraitzeko moduko baten bidez.

Parisko Hitzarmenean zehazturiko helburuekin lerrokatuta dago ekimena, 2050erako karbono emisio neutroak lortzeko. Lean & Green programaren egiturak bost maila ditu, karbono emisioak gutxitzeko helburu zenbakarriekin. Maila bakoitzeko helburuak lortu ondoren, enpresak saritzen dira izarrekin.

"Logistikak ere gure lan eta kontrol prozedurak indartzen eta eguneratzen lagundu dezake eta lagundu behar du non ingurumena aintzat hartzen baita Osasun eta Iraunkortasun konpromisoak betetzeko orduan", esan du EROSKIren Operazioetako zuzendariak, Alberto Madariagak. *"Lean & Green ekimena ezin hobe ezkontzen da erakundearen helburuarekin; hau da, berotegi efektuko gasen emisioa gutxitzea.*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Azken urte hauetan logistikaren eremuan emisioak %20 jaitsita, orain errazago lortuko dugu 2025erako %25 jaisteko helburu globala".

Logistika eraginkorragoa, nola ari gara lortzen?

"Lau urte honetan bakarrik, EROSKI %25 baino gehiago murriztu ditu bere jardura logistikoaren emisioak; horrek esan nahi du 25.800 tona CO₂ baino gehiago saihestu dituela nola eta bere garraio eredu berrian egindako ekintzei esker; izan ere, eraginkortasunean eta iraunkortasunean jarri du ardatza", azaldu du Madariagak.

Ekintza bat baino gehiago jarri dira martxan, markaturiko helburuak erdiesteko. *"Ibilgailu berriak erosi ditugu (gasezko ibilgailuak, megakamioiak, flota berritzeak...) eta lan prozedura berrietan murgilduta gaude eraginkortasuna hobetzeko, betetzeak handitzeko eta hutseko bidaiak gutxitzeko", azaldu du EROSKIren operazioetako zuzendariak.*

Plataforma iraunkorragoak

"Gure prozesu logistikoetako eraginkortasun energetikoa plataformei lotua dago: eraikuntza iraunkor baten alde egin dugu, eta energia aldetik eraginkorragoak diren ekipoekin hornitu; hala, ingurumenean egiten duten inpaktua txikiagoa da. Esaterako, LED argiztapena jarri dugu, mugimendu detektagailuak, tenperaturaren robotak, kutsatzen ez duten hozte gasak eta argi naturalaren aprobetxamendua, plataformen eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Gainera, gure helburua da energia berdea erostea; gaur egun gure plataformen %20tan darabilgu dagoeneko. Bestalde, hondakinak kudeatzeko ereduak, ekonomia zirkularraren printzipioak darabiltzagu", esan du Alberto Madariagak.

EROSKI, hondakinak alferrik ez galtzeko konpromisoa zintzo betetz, lanean ari da sortzen dituen hondakinak gutxitu eta berrerabiltzeko, birziklatzeko edo saihestu ezin diren hondakinak berriz baloratzeko. Horretarako, 46 milioi ontzi logistiko berrerabiltzen ditu urtean bere plataformetan, eta sortzen dituen hondakinak birziklatzen direla bermatzen du alderantzizko logistikaren eta gestore baimenduen bidez.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)